

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko abuztuaren 13a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Lakuntza • Etzi Lakuntzako Pertza Eguna ospatuko dute Sakanakoek.

Valentin Redin • «Nafarroako kultura politikoaren ispilu izan behar du Parlamentuak».



Ezti ekologikoaren lehen pausoak

Nafarroan 300 erlezain baino gehiago daude, baina bakarrak produzitzen du ezti ekologikoa: Sagrario Esnoz. Iruñean bizi da Esnoz. Haren bidea hartu dute Jaime Casamitjamak eta Joseba Villacortak. Oraindik azken baimena ez lortu arren, ezti ekologikoa egiteko eta erlezaintza lanbide izateko azken pausoak ematen ari dira. Jadanik badituzte hainbat erlategi Nafarroan eta Arabako Errioxan.

Lakuntza ●

Lakuntzako Pertza Eguna ospatuko dute etzi

Goizaldeko 6:00etan Lakuntzako Elkarteko ataritik San Migelerantz abiatuko dira

Igande honetan jai giroa nagusi izanen da Lakuntzatik San Migelerako bidean. Hitzordua goizeko 6etan izanen da Lakuntzako Pertza elkartearen atarian.



Lakuntzako Pertzaren Eguna aspaldiko ohitura da Sakanan.

● ARTXIBOKOA

EGUN HONETAKO PROTAGONISTA, hau da, tripotak pertza batean San Migelera garraituko dituen astoa, prest izanen da bertan, baita bidean luze gidatuko duten lagunak ere. Jakina denez, San Migelerako bidean tripotaz betetako pertza erori zen lekuan geldiduna egingen dute tripotak jateko. Ondoren, eguerdi partean, meza eta gero, Oizartungo Oñatibiak asmatutako "Lakuntzako Pertzaren" dantza ikusgai izanen da San Migelen.

Zalantzarik gabe Sakanako festarik bitxienetakoa dugu Lakuntzako Pertza. Dirudienez, lakuntzarrek aspalditik ospatzen zuten festa, baina lehen beste izen bat hartzen zuten: Asulbizio festa. Festa

lakuntzarrek antolatzen bazuten ere inguruko herrietako jendea pila joaten omen zen. Lagun asko bezperaz igotzen zen San Migelera.

Behin San Migelerako bidean tripotaz betetako pertza erori eta mendian behera bueltaka hasi zen. Handik Uharteko errotaria zebilen, eta tripotak bat lehertzean ate-

ratako zizta edo saldak begian eman eta begi bat okertu zitzaion. Pertza erori zen urte horretan festa ez zen galdu. Are eta gehiago gero eta entzute gehiago hartu zuen. Lakuntzarrei inguruko jendeak burla egiten zieten gertakari honengatik, baina lakuntzarrek umorea sobran dutela erakutsi eta egun historiaren

pasadizo xeblebre eta hunkigarria hori parrandarako aitzaki ederra bilakatu dute.

Lakuntzako Pertza elkarte antolatzailea
Gerra Zibilarekin Lakuntzako Pertza ospatzeari utzi zioten. Hamarkada batzuk ospatu gabe egon eta gero, 1967an berreskuratu zuten aintzina-

ko Asulbizio izandako festa, baina eraberriturik. 1963-64 urtean Lakuntzako Pertza elkarte sortu zen eta elkarte kideak festaren suspertzzaileak izan ziren. Geroztik, urtetik urtera gero eta jende gehiagok parte hartzen du.

Egun elkarteko kideak buru-belarri aritzen dira Pertza eguna antolatzen, prestakizunak ez baitira nolanhikokak. Musikariak, dantzariak eta autobusak hitzartu eta bertan biltzen den jendetzarako gosaria garraiatu eta prestatu (200 kilo tripotatik gora, 180 litro ardo eta 300 ogi). Pertza bota zeneko malkorrean jango dituzte tripotak, beraz, parte hartu nahi baduzue, goiz ibili.

Bestalde, Osasuna-Alaves partidua ikusteko aukera izanen da Zelai Berrin 18:00etan. Festen aurreko astean puntako futbol partidua ikusteko aukera izanen da Lakuntzan Asador Frontón torneoaren barnean. Bitxikeri bezala zera aipatu beharra dago: Alfredo Diestefano Real Madrileko jokalaria ohiak egingen duela lehen sakea. Festak, bestalde, abuztuaren 21etik 26ra bitartean izanen dira.

→ Amaia Amilibia

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Eldarnioa motor city-n

Ez diote propaganda makala egin. Nik ere etxean jaso nuen mapa, eta tarte luze bat eman nuen hatza lerro koloretsu batetik bestera, konbinazioak egiten eta, ezin ukatu dut, ameskeriatan murgilduta. Izan ere, niri argentinarek bilabesari ematen dioten izena gustatzen zait: colectivo.

Joan den igandean egokitu zitzaidan hilabetea ez duen autobus sare probatzea. Giro sapa zen eta ni markesinapean zain. Gizon gazte bat inguratu zitzaidan. Izertan zegoen eta galduta zirudien, ibiltzeko ohiturarik ez duenaren pauso baldarrak ematen zituela. Barañainera joan nahi zuten eta argibideak eskatu zizkidan. Hantxe ibili ginen biok paperei begira. Ibilbidetaren xehetasunak argitutakoan jesarri egin zen. Zigarroa piztu zuen: "Ez naiz oroitzen noiz hartu nuen

azkeneko autobusa", esan zidan begiratu gabe. Nekatuta zegoela kilometro erdi bat oinez egin behar izan omen zuela eta geunden lekuraino iristeko. Burua mugitu zuen, etsita zirudien: "Kotxea hondatu zait eta salduta nago", eta lurrera begira jarri zen.

Jainkoak guzti-guztia entzun dezakeela esan zidatenetik nire parte gaiztoari eusten ahalegindu naiz, baina aitortu behar dut ez nintzela ondoan nuenaz urrikitu. Aitzitik, zera pentsatu nuen: "Izorra hadi".

Nire ondoan jesarrita zegoenak ez zekien nik, egun horretan berean, esatari irribarretsu bat ikusi berria nuela, pozik, ekonomiak azken aldia egindako hobekuntza nabarmentzen zuten datu bat ematen. "Uztailean, eguneko, bost mila automobil saldu dira Espainian", adierazi zigun ikusleoi.

Hori zen gizarajo hark ez zekiena. Nik zifra bat,

estatistika bat nuen bi begien artean grabatuta, eta nire alderdi ilunetik erabat estali ninduen itzal haundi bat etorri zen, eta eskuan, gainera, giltza hotza zuen itzal horrek "jai daukak" zioen eta ni lurtean belauniko metalezko colectivo berde batekin "burrum, burrum". Edo antzeko zerbait.

Nire ondoan zegoena zutitu egin zen. Bere bilabesa heldu zela ikustean korri egin zuen, hurbil-hurbil gelditua zen arren. Pagatzeko orduan billete xorta bat atera zuen.

Autobusa lekutu zenean halako zera bat geratu zitzaidan, eta baketzeko tenorea heldu zela iruditu zitzaidan. Begiak hertsitu nuen eta auto-stop egiten ari nintzela imajinatu nuen eta joan berriak hartzen ninduela, eta gero beste batek eta horrela so happy together eta sha la la la txatarrategi izugarri bateraino.

Lizarra ●

Ondare sakratua ikusgai

Orain arte ezkutuan izandako hainbat artelan ikus daitezke Gustavo de Maeztu museoan

Lizarrako eliza, parrokia eta komentuetan izan dira mendeetan orain ikusgai dagoen antzinako ondare sakratua. Bertzeak bertze, XIV. mendetik XIX.era bitarteko margoak, irudiak, tailak, erlikitegi eta zilarrak topa daitezke.



Gustavo de Maeztu museoan elizako artelan ederrak bista daitezke.

● JOSU SANTESTEBAN

HILAREN 29RA BITARTEAN Lizarrako ondare sakratuaren bilduma ikus daiteke Gustavo de Maeztu museoan. Bertan, XIV. mendetik XIX.era bitarteko artelanak daude. Margoak, irudiak, tailak erlikitegi eta zilarrak. Orotara, 28 artelan. Guztiak Lizarrako eliza, parrokia eta komentuetan gordeak zeuden orain arte, eta, izkribu eta liburuetan haien berri bazoguen ere, jende anitzek orain ikusi ahal izango ditu lehen-dabizikotz. Eraikuntza erlijio-soetako sakristia eta klausuroak izan dira oraintsu arte artelan horien babesleku, eta

erakusketa amaitu ostean berriro itzuliko dira ilunpera.

Gustavo de Maeztu museo-ko zuzendari Camino Paredesen hitzetan, hau da orain arte egin den gisa honetako erakusketa bakarra, eta gure iraganaren ezaguera eta kultur jarduera aberasteko balio du. «Lan hauetarako eta duten helburuetarako museoa leku egokiena ez bada ere, toki ona da gure kulturaren ikuspegi honen aztarnekin errotu eta bere edertasuna hobeto gozatu ahal izateko», azaldu du.

Aurrenekoz egin da erakusketa hau, eta ondoko urteetan ere asmo berberarekin jarraitzeko ideia dute. Hala-ber, erakusketa inguruko herri-erakusketara ere zabaltzeko asmoa dago, eta aurten hiriko obrak besterik aurkeztu ez badira ere, merindade osora hedatzeko asmoa dago.

Hala, guztionak diren obrak guztiongan ailegatzeko dira. Camino Paredesen ustetan, «lanok jatorrizko lekue- tan kokatuta, berezko inguru- an, ez dute gure arreta be-

har bezala jasotzen, edo gu- guztion begiradak eta goza- menak ez dituzte laztantzen».

Aipagarria da Puyko Ama Birjinaren basilikako egur- rezko kutxa baten estalkia. Bertan, Deikundearen irudi bat ikus daiteke alde batean eta hamabi apostoluen irudia bertzean. Halaber, erakuske- tak San Migel elizako zilarrak- ko lau erlikitegi bildu ditu. Horiek dira obrarik zaharrene- nak; XVI. mendekoak.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak
Eduarne Elizondo

Urtubitarren jauregia

Azkenengo zenbakian, *Herria* aldizkaria Lapurdiko Urtubitarren jauregiaren historiaz mintzo da. Lapurdiko Urruñan dagoen jauregia hartu du aldizkariaren ale berriak gai nagusitzat. Testuak gure lurretan gauza berezi eta balotsu anitz ditugula dio, baina, hala ere, beti ondoran izanik, ez ditugu aski ezagutzen, ez eta aski estimatzen ere gure ondarearen lekuko diren leku guztiz aberats hauek. Horrexegatik, *Herria* aldizkariak Urruñako Urtubitarren jauregiaren historia ekarri du azken zenbakian.

Jauregia De Coral familiarena da gaur, eta, orain, sei mendetan gure his-

toriaren lekuko izan dena ezagutarazi nahi dio jendeari. Urtubitarren jauregiak ateak zabaldu ditu, urtean zazpi hilabetez, bai hemengo jendeak bai kanpokoak ikusi ahal izateko.

Baina jauregian istorio latz anitz gertatu izan dira. Aipagarrienetakoa XVI. mendean izan zen, suak funditurik erabat berritu behar izan baitzuten. Maria, Urtubiko alaba, Jean de Mont-Realekin esposatu zen 1463an; zenbait urteren buruan, Frantziako errege Luis XI.a Urtubiko jauregiraino heldu zen, eta etxe-ko jaunak, emaztea eta seme-alabak utzirik, Parisera ino jarraitu zion. Maria,

bakarriz zegoela, berriz ezkondu zen Rodrigo Ganboarekin.

Baina 30 urte igarota, Jean de Mont-Real itzuli eta Maria bere emaztea eta jauregia ere berea zela esan zuen. Maria, haserre bizian, jauregiari su eman edo emanarazi zion, eta bigarren senarraren familiarengana alde egin zuen.

Suak jauregia suntsitu zuen ia, eta erabat berritu behar izan zuten guztia. Geroztik, berriketa ugari egin izan dizkiote Urtubitarren jauregiari, baina, orain, gure historia eta ondarearen lekuko garrantzitsua da. Inolako zalan- tzarik gabe, bisitatzeko modukoa.

Aznar I.a "el Verborreico"

Aurretik Xabier Larrabururen eskaintza eskertu nahi dut. Seguro nago nire idatzia ongi euskaratuko duela eta, beraz, modu egokian itzuliko dituela nire hitzak horren eder, zahar eta espainola den euskara hizkuntzara. Seguro nago. Ez dut inongo dudarik horretaz. (...) Bost hilabete pasatu dira jada Larraburu Jaunak, Moncloan Espainiako intelektualekin antolatzen ditudan afarietako batean, gonbita egin zidanetik. Bost hilabete pasatu dira, bai, Larraburu Jaunak bere zutabea itxaropenezko hitz batzuk idazteko eskaini zidanetik. Bost hilabete pasatu dira eta iritsi da eguna. Zer esango dut, zer gaineratuko diot horren begi-bistakoa den jarduera bati? Batzuek esan didate leku ezin egokiagoa dela zutabe hau, gizar- tean duen eraginarengatik, Bake Prozesuaz aritzeko. Bake Prozesuan eman ditugun pausoak azaltzeko. Ongi da. Egin dezagun. (...) ETAREN su-ete- naren ondok, Espainiako Gobernuak eman behar ziren pauso zehatz, indartsu eta seguruak eman ditu. Hau da: egin behar zirenak egin ditugu. Saiheztuz... egin behar ez ziren gauzak, eta sinesdaizue: egin behar ez diren gauzak ez ditugu sekulan egingo. Egin behar zirenak eginda, argitu dudan moduan, baliteke zuen galdera izatea: «eta hemendik aurrera zer?». Galdera horri modu zehatzean erantzuniko dut. Hitzei ez diet inongo beldurrik, eta ez zaie beldurrik izan behar! gauzak argi eta garbi esan ditugu orain arte eta horrela segitzeko asmoa dugu, bai nik, bai Espainiako Gobernuak: hemendik aurrera egin behar diren eta eman behar diren pauso zehatz, indartsu eta seguruak emango ditugu. (...) Arduratu behar dugun gauzez arduratu-ko gara eta, eta hemen zehatza izan nahi dut, arduratu behar ez dugun gauzez ez gara arduratu-ko. Ekimen garrantzitsuak egingo ditugu eta egiten ez ditugunak ez dira horren garrantzitsuak izango, are gehiago! agian garrantzirik gabekoak izango dira. Nafartarrek ez dezatela dudarik egin horretaz. Bakea dugu helburu. Bakea eta gauzak argi eta garbi egitea eta esatea. Hori da gure ondarea, hori da gure urguilu apala. Mila esker. ●

Erlezaintza hastapenak

Nafarroan ezti ekologiko ekoizle bakarra dago, baina laster kooperatiba bat lotuko zaio bide horri

Nafarroan 300 erlezain baino gehiago daude, baina sei bakarrik bizi dira horretaz, eta bakar batek produzitzen du ezti ekologikoa: Iruñean bizi den Sagrario Esnozok, hain zuzen. Haren bidea hartu dute Jaime Casamitjama eta Joseba Villacortak. Europako Batasunak Abeltzaintza Ekologikoaren araudi berria onartu du duela gutxi, eta horrek ere eragina izanen du erlezainon lanbidean. Oraindik azken baimenik lortu ez duten arren, ezti ekologikoa egiteko pauso gutxira daude. Jadanik badituzte hainbat erlategi Nafarroan eta Arabako Errioxan.

bere produkzio guneak ditu, baina elkarlanean aritzen dira.

Sakabanatuak

Erlategiak dituzte Murillo el Fruton, Uxueko Zerran, San Martin Unx-en, Laguardia ondoan Arabako Errioxan, Iruñerrian eta Kantabrian. «Erlategien sakabanaketa Nafarroan dauden landaretza ezberdinengatik egiten da, eta hainbat loraldiri etekina atera behar zaie», azpimarratu du Jaimek. Hala ere, bi aldetan bakarrik lan egiten da: alde mediterranearra deitutakoa (Erribera eta Lizarreriako toki



Hainbat ebe dituzte elkarlanean aritzen dira.

batzuk) eta mendikoa. Mediterranean aldean ez kai eta erromero zaporeko etziak lortzen dira, eta mendialdean ainarra eta milia loretatik ateratakak. Erabateko produkzioan dagoen erlauntz batean batez beste 40.000-50.000 erle pausa ditzake. Hainbeste dituztenez, sakabanatu egin behar dira. Erleak 6 kilometrotan mugitzen dira, elikadura eremua deitutakoa, baina ezti uzta lortu ahal izateko eremu horrek kilometro eskasekoa izan behar du: zenbat eta gehiago mugitu erleak, orduan eta lorauts gutxiago ekartzen baitute erlauntzera. Erlategiak zaintzeko sekretua, abeltzaintza guztietan bezala, garbitasuna omen da. «Erlezaintza intsektuekin egiten den abeltzaintza besterik ez da», azaldu du Jaimek. «Oinarria erle asko eta osasuntsuak izatea da. Era berean, loraldi


onak dauden tokietan kokatu behar dira, eta ezti haiek eginen dute», gaineratu du. Era berean, erlategi bat abiatzen denean aldiro erle erreginak berritu egin behar dira, dituzun erlauntz hobereketan oinarriturik. Bestalde, gaitzaren bat sumatzen bada, berehala kendu behar da erlauntza besteak kutsa ez ditzan edo tratatu. Nafarroan, Euskal Herriko beste herrialdeetan bezala, erleen gaitz ohikoena varroa da. Bizkarroi hori erlekumean hazten da eta erle heldua akabatzen du eta, ondorioz, erlauntz osoa.

Erle baten bizia egiten duen lanaren arabera irauten du. Udan, 45 egun inguru bizi da, produkzio garai aproposena delako; al-

diz, udazkenean jaiotzen bada, hibernatu egiten du eta udaberriko biziberritzera arte irauten du. «Etengabe berritzen doaz. Erle erreginak egunero batez beste 2.000 arrautza jartzen ditu eta», diote bi ekoizleek. Zenbat lore hainbat ezti mota lor daitezke, eta are gehiago Nafarroan, eguraldi oso ezberdinak izanik landaretza ere askotarikoa delako. «Neguaren hasieran egiten baduzu, zapore bakarrekoa lor dezakezu, baina nahasketa bat ere egin zenezake urte osoko eztiak batuz. Dena dela, merkatuak lore bakarrekoko eskatzen ditu, zapore, kolore, usain eta eztiaren osaketa bera ezberdinak direlako», azaldu dute.

Eztiaren kalitatea erlezainak ezti horrekin egiten dituen manipulazioen arabera izanen da. Hori dela eta, bi ekoizleek ezti ekologikoaren bidea hartu dute.

Erlezaintza ekologikoa helburu
Abeltzaintza Ekologikoaren araudia onartu berri du Europako Batasunak. Jaimeren



Erleen peraskak. JOSU SANTESTEBAN

Profesional gutxi

Nafarroan bada erlezainak biltzen dituen elkarte bat, Apidena izenekoa, baina ez ditu herrialdean dauden guztiak ordezkatzen. Guztira 325 bazkide ditu, eta horietatik sei bakarrik bizi dira erlezaintzaz. Gainera, eztiak afiziodunak edo natura gustuko dutenak dira. 1997an Europako Batasunak ematen zituen laguntza lortzeko harremanak hasi zituen Nafarroako Gobernuarekin, eta 1998an jaso zuen lehen diru laguntza. Erakunde presidentea Juli Fernandez da, eta, beraz, dioenez, Nafarroak ezti ona ekoizti arren, Espainiak beste komunitate batzuekin konparatuz badu trabatu

errez jaiotako loreen polinizazioagatik ez duelako diru laguntzarik jasotzen. Hala ere, erlezain ekologikorako bidea askok hartu ez arren, sektorea normaltzen ari dela dio. Bestalde, Jaimeren irudiko, erlezaintza ekologikoa gorantz joan da, merkatuak horrela eskatzen duelako. European Alemanian hasi zen garatzen, eta egun Italiak ere asko ekoizten du. Bestalde, Europatik kanpoko herrietatik ere ekologiko zigiluarekin gero eta gehiago omen dakarte ezti. Haren iritziz, «jendeak gero eta gauza goxoagoak eta aukeratuagoak eskatzen ditu eta horri erantzun behar zaio».

Jaime Casamitjama:

«Erlategien sakabanaketa Nafarroan dauden landaretza ezberdinengatik egiten da eta hainbat loraldiri etekina atera behar zaie»
•
«Erlezaintza intsektuekin egiten den abeltzaintza besterik ez da. Oinarria erle asko eta osasuntsuak izatea da. Era berean, loraldi onak dauden tokietan kokatu behar dira, eta ezti haiek eginen dute»

irudiko, «ez da nahikoa, gehiengoak egiten duen abeltzaintza izatea nahi baldin badugu». Araudi berriak produktuaren azken emaitzari ematen dio balioa. Jakiak ez du hondakinik izan behar, beraz. Baina hondakinik gabeko jakia, kasu honetan ezti, lor daiteke ohiko moduak erabiliz. Kalean den araudi berriaren arabera, ez da aintzat hartzen produkzio prozesua, emaitza baizik. «Ezberdintasuna ez dago azken produktuan, baizik eta erleekin lan egiteko moduan. Hau da, naturarentzako kaltegarriak ez diren produktuak ez erabiltzean, ekosistemak gordetzeko modua delako. Erlauntzetako gaitzak produktu naturalekin tratatu behar dira, oinarritzko olioak, margo ekologiko garestiak...», gaineratu du. Haren irudiko, erlezaintza ekologikoa bultzatu eta sustatu nahi bada, araudiak zabalagoa izan behar du, oraingoak atek ixten dizkielako ohiko produktoreei, nahiz eta orain, lehen ez bezala, onartzen duen laborantza egiten den tokietan erlategiak kokatzeko aukera.

Beraz, Jaimeren aburuz, «hobe litzateke erlezain gehiago egotea erlezaintza ekologikoaren zigiluarekin, nahiz eta laborantzetan lan egin, baina, betiere, erleekin tratamendu naturalak eta natura izorratzen ez dutenak erabiliz», nabarmendu du.

Biek *Apis Mellifera Iberica* erleak dituzte, hau da, berez Euskal Herrikoa den erle beltza izenekoa. Bi ekoizleok uste dute beste erle batzuekin lan egitea zaila dela eta askotan arriskutsua, gaitza asko sor daitezkeelako. «Hemen erlezaintzak behar du hazkuntzarako erle bat eta bertako eguraldi zikloetara oso ongi ohituta dagoena», diote.

Etorkizunerako: kooperatiba


Erlezaintzaz bizitzeko urtero erlauntz bakoitzetik 20 kilo ezti lortu behar da. Araudiaren arabera, erleak ezin dituzte gehiago produzitzera behartu eta eguraldiaren menpe dago erlezaina. Hortaz, neguaren akaberan hazi behar dute lehenengo loraldiekin batera. Dena den, araudi berriaren dena ez da txarra, transhumantzia dabilzan erlategiak hobekiago maneiatzeko aukera utzi duelako. Erleak berez ateratako loreak dauden laborantza batean jartzen uzten du, eta erlezain batek bai ohiko moduan eta bai ekologikoan lan egin dezake. Jaimek eskarmentua baduen arren, Joseba hasi besterik ez da egin. Bakoitzak duen ustia-kuntzak lehen ezti ematen duenean kooperatiba bat sortzeko asmoa dute, eta horretarako beste bazkide batekin nahikoa dute. «Helburua da bakoitzak bi urteko epean 500 erlauntz izatea; beraz, milara iritsiko ginateke biak baterik», diote, pozik. Heldu den urterako bi ezti mota egin nahi dituzte: erromeroa Nafarroako hegoaldean eta lore askotakoa mendialdean.

Josebak eta Jaimek ez dute ezti pototan saltzen: 300 kiloko barrikatan sartzen dute, handizka saltzeko. Gerora, 1.500 erlauntz izatera iritsi nahi lukete, beste lagun bat lortu eta kooperatiba sortuz gero. Aurten Kantabrian Josebak dituenarekin hasiko dira, irailen.

→ Irene Arrizurieta

JAIME CASAMITJAMA NAFARRA aspalditxoan da erlezain, eta Erriberako Murillo el Fruto herrian bizi da. Aldiz, haren bazkidea, Joseba Villacorta bizkaitarra, hasi berria da erlezaintzan eta Iruñea du pausaleku. Josebak ogibide polita izan zitekeela pentsatu, eta, Nafarroako Kudeaketa Teknikorako Institutuak (ITG) antolatzen dituen hainbat ikastaro egin ondoren, ezti ekologikoa produzitzera ausartu dira. Aitzindari bakarra dute herrialdean, Sagrario Esnoz iruindarra, eta haren bideari jarraitzea erabaki dute. Esnozok 250 erlauntz ditu eta bi ezti mota egiten ditu: udaberrikoa, non ez kai zaporea den nagusi, eta, udazkenekoa, non ainar gustua den nabariena.

Josebak irailerako 300 erlauntz eta bere lagunak heldu den urterako 400-500 erlauntz bitartera iristeko asmoa du. Bi lagunak ez dira bazkide, bakoitzak



Peraskak kontuz atera behar dira erle etxetik. JOSU SANTESTEBAN

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Alexander Tapia Perurenaren mendurrena

Herenegun Iruñeko olerkaria jaio zeneko mendurren eguna genuen, alabaina, komunikabide gehienetan bestelakoa izan da egun horrek utzitako arrastoa: interes zientifiko urriko eguzki-eklipsearen ingurukoak alegia



*Gau ilunaren ixiltasun
Maiz ta sarritan gogaltzen
Nere erriaren etorkizuna
Begi zorrotzez aztertzen...*

UDA PARTEKOA EZ OMEN DA kazetarien berebiziko garai aukeratu, eta politika zein futbol ezean, berri emanaldien minutu luzeak betetzeko zer dute kezka iturri nagusi. Aurtengo abuztuan, ordea, afera zertxobait artaztu bide da, eta zerutik beretik iritsi zaie mintzabide hauta, hots, eguraldiaren nahasmenta edota eguzki-eklipsearen zioa. Honetan ere, makurregia izan da gure Tapia Perurenaren egoala, eta abuztuan jaiotzeaz ezezik, bere mendurrenaren egun berean eguzki-eklipse berezia egokitu zaio, mendearen azkena eta Europa zibilizatuan hots, eta seguruenik ere, efemeridea nahikoa ohar-kabea berdin-berdin igaroko bazitzaigun arren, ez da dudarik ospakizun egunari aitziz zimaurre moltsoka aritu izan dela, Nostradamusen izenean neurri handi batean, beharrekoaren arretra goriki galarazteko.

*Olerkari gaxoa, zifnez
erru karria
Esango al didazu zein
dan zure miña?
Zure gogo samurra
horrela bizitzeko
Atsekabez betea ote da
egiña?...*

Ez litzateke bidezkoa Tapiaren olerkiak argitara emateko Iruñeko Udalak hartu zuen ardura ez txalotzea, baina honetan ere, zoritxarrez, bigarren asmoak lehenbizikoa sobera apaldu zuelakoan banago, hau da, Tapiaren mendurrena bera nahiko ahantzirik geratu zaigu, bere olerki batzuk jaso dituen bildumari liburu azokaren bezperan eman zitzaion garrantziak janda neurri handi batean. Bestelakoa zatekeen kontua, ausaz, ekaineko hauteskundeak oraingo abuzturako edo irailerako atzeratu izan balira, alta honek ez du atzera bueltarik, damuz, eta jadanik urriegi geratu zaigun olerki-bilduma da asteazkeneko ospakizunerako izan dugun bakarra, eguzkirik gabeko goiz ilun batean irakurtzeko gainera.

*Oñaze ontan, ni naiz
neguko zuaitz biluzi
Ta izoztuai idurikoa.
Aize gogorak astintzen
ditu, ta aien azalez
Euria doa ta doa...*

Iruñeak izan duen euskal poetarik haundienaren mendurrenak, ordea, bestelako ospakizunak behar zituen. Ez litzatekeen soberaegi Barzina alka-tesak Euskaltzaindiko ordezkariak udalean eta ekitaldi ofizial batean hartu izan balitu honen karietara; bestalde ere, akademiak toki egin behar izan zion Tapiaren oroitza-

penari Irigarainen urtea den honetan -eta ezin da ahaztu bi idazleak lagun hurkoak izan zirela-; karrika zein plaza bati Alexander Tapia Perurena (1899-1957) errotulua ezartzen ez zaion bitartean on litzateke Iruñeko Udalak urtero antolatzen duen idazle berrien literatur sariketa gure poetaren izenez bataiatzea, betiere lehiaketa berri bat sortzen ez badu, orobat, izenbereko beka deialdia edo halakoren bat, agian ere, Tapiaren izena harro eramango lukeen Kultur Fundazio batek emanda.

*Ordun, olerkaria, zure
maite-kutuna,
Biotz orren jabea, sumatu
det nor dan.
Aberriarendako
maitetasun bizkorrak
Surik ipñi ditzu biotz-
ezpainetan...*

Edozein modutan ere, balizkoetan dihardudan bitartean, baikor izateko arrazoia bazait pozgarri, hau da, neurri batean bederik ere, geure poeta ahanztura beltzetik atera dugula, eta kaleko iruñar arruntengana poxi bat bedere iritsi dela; ziur naiz Tapia bereziki poztuko litzatekeela oraingo erkideek bere lana irakurtzen ikusiz, eta horixe da hain zuzen, Iruñeko euskaldunok egin diezatokegun omenaldirik egiazkoena, nahiz egia esan, topikoegia dirudien.

*Agur, Olerri eder-ederra,
Nere ortzeko argia!
Bitxi aratza, lili mardula
Goi txakunetik jautsia!*

etorri ahalean

Patziku Perurena



Eguzki diburtziatua Leitzaan

LEITZAN DENETIK BADA. Ez dakit zer bedekazio duen herri honek. Obispoak, Musikerok, Aitzkolarik, Perurenak, Saralegik, Zabaletak, Barriolak, Reketak, Abertzalek... Denetik bada hemen, eta famakok gainera denak.

Astronoma falta genuen, eta aurtengo pestatan ailegatu zaigu hura ere. Jakinen duzue Plazaola trenbidea berritzen ari direla eta, (Uitzitik Lekunberri bitarteko hargin horiek baino fundamentu hobexegorik ekartzen ez badute, ez dakit noizko bukatuko duten baina, tira) hango bagoi eder batean etorri zaigu gure astronomo unibertsala, eta Estazio aldetik herrira sartu denean, sekulakak esanda, harriturik utzia du herria.

"Leitzen pesta egunean, goizeko hamaiketan hasiko da eguzki eklipsea eta eguerdiko ordu bata eta hogei ta hemezortzi minututan bukatuko. Hemen ez da eklipse osoa izanen, nahiz eta eguzkia asko motelduko duen".

Eta bete egin predikzioa. Ezpatadantzariek hura poza! Eta ziztulariok ere ez tikiak. Eguerdi eguerdian, eguzki dindak zuzenean jotzen duen ordu kriminal horretantxe ari behar izaten baitugu plazan, jende guziaren aurrean, eta aurtun juxtu, ordu horretantxe itzaldur Eguzkia! Marka da gero, hori! Ripaz eta Martinez errukitu ahala aditzen nion astronomiaz asko dakien ezkurur bati bazterretik:

"Bauhen garaie motell. Ni San Tiburtzio eguerdin ezpatadantzarik ekusten nagoala, beroak itto beharren, zeaz akordatzen nak urtero: leitzarrak illargia itzaltzera yan zieneko hartaz. Eta nere arten esatelt: Redtos, ez ote du tiñork yon behar eguzki sutu au itzaltzera? Ta orratx aurtun: bete dok nere erregue. Biba San Diburtzio!"

Gure gurasoek adoratu egiten zuten eguzkia, "bihar ere eguna argituko ahal du!" beste sinesterrik gabe, eta gu beti kejo eguz-

kiarekin: eskas ez badugu sobra. Horretan nabaritzen da ederki, pagano zuhur haiengandik kristaua negartonganako alde. Hatak hazekiten zeinen gauza ederra den egunero argia, eta gu Iberdrolaren errezihoa pagatu ondoren ere ez gara ohar-tzen. Begira zeinen ederki gogorara arazten digun gure astronomo leitzarrak:

"Maiatzaren azkeneko eguna da. Goizetik garbi, egun ederra dator. Haritzak, pagoak, lizarrak, gaztainak, sagarrak... denak ostatuak daude. Milaka belar klase atera da lurtean. Intsus loreak usai gozotan daude. Izadia dena mugitu da, Nork mugitu du?"

Miztorra lorez lore dabil, hegala segundoko auskalo zenbat aldiz astinduz. Nondik ateratzen du energia? Jesus (Lazarona?) laisterka dabil. Ordu terdi darumaki izerdi putzutan. Nondik sortzen du energia?

Miloika auto gasolinak dabilzki. Gasolina petroliotik ateratzen da. Baina nola sortu da petrolioa? Bart hura euri erauntsia! Miloika litro ur bota zituen. Zein kristok igo du, ordea, ura hodeietara?"

Eguzkiak. Egunero madarikatzen dugun argi inozente horrek. Horretxek egiten ditu ixil ixilla lan horik guziak. Horrengatik adoraten zuten gure gurasoek eguzkia, San Miel edo San Tiburtzio sortu baino askoz ere lehenago: jaingo fina, ixila eta langilea zelako.

Baina, Eguzkiak ere gaupasa egiten du abuztuaren hamai-kan. Orain ehun urte, aurtun bezalaxe San Tiburtzio eguerdiz izan omen zen azkeneko eguzki eklipsea Leitzaan, eta oiloak laster batean sartu omen ziren oilategira. Aurtun berriz, ilun ezkilak jo bai goizeko hamaiketan Kandidok, baina halare ezin erretirazi inor: "Eplikse (sic) total iñ arte seittuko diu pestan. Euzkie osota tiburtziatu arte ez gattok oeratuko. Soltero nai diu guk ilargie". Ikusten: gaztea beti trautzaille, ilargia adoraten baitu.

Ziria

• Motxorrosolo •

Ideien koloreak

URDINEZ JANTZIRIK EZAGUTU ZUTENEK EZ DUTE AHAZTU. ZINEZ luzea, korrika debekatu nahi izan zuenaren ibilbidea. Egunduz zuzentzen duen indarren berriemailea zen garaian, bere ideia faxistei zor zien begirunea, gauza guztien gainetik jartzen zuen. Egunduz, azula baztertu gabe, berdea du nahiago, Urepeleko gainetik ikusten dena barne.

Valentin Redin

Parlamentuko presidentearen kabineteko burua

«Nafarroako kultura politikoaren ispilu izan behar du Parlamentuak»

Valentin Redinek Iruñeko Udalean zituen karguak utzi eta Parlamentura egin du jauzi, sortu berria den postu batera: aurrerantzean, Nafarroako Parlamentuko presidentearen prentsa bulegoko buru izanen da. Haren ustez, ordezkatu duen erakundeak herrialdeko kultura politikoaren isla izan behar du.


kaleratzen da, baina jendeak ez du ulertzen. Gakoa da hori guztia jendeari hurbiltzea.

■ Nola egin daiteke?

Hori da irudikatu beharreko erronka. Gustatuko litzaidake Parlamentuko saioak pelikula on batek edo antzezlan batek duten harrera ona izatea. Jendeak zergatik ez du eskatzen Parlamentuko mahai-inguru bat aditzera etortzeko baimenik? Ba, astuna eta pisua delako. Ez zaie interesatzen. Horregatik, etxeak kristalezkoa izan behar du.

■ Eta zein dira erronka horren ildoak?

Aurreraezinak dira. Nafarroako kultura politikoaren bultzatzaile izan behar dugu eta edozein proposamen sar daiteke hor. Adibidez, oratoria ikastaroak egin daitezke.



● JOSU SANTESEBAN

HIRIBURUKO ARRIETA KALEKO eraikinean duen bulego berrian hartu gaitu. Hitz jarria ez zaio falta, eta presidentearekin beharrezko mintzaldiak soilik izan omen ditu orain arte. Erronka berriaren aurrean, proiektuak besterik ez du orafigoz.

■ 26 urte Iruñeko Udaleko Protokolo arduradun eta azken lau urteotan Ekin-tza Kulturaletarako zuzendaria izan zara. Aldaketa handixkoa egin duzu Parlamentura joatean?

Funtzionamenduari dago-kionez, erakundeak berdinak dira. Helburuak berak dira. Udalak Parlamentuaren aldean orain duen abantaila da Herriko Etxeak aukera baduela ekitaldi publiko ugari egiteko, eta Parlamentuan, eraikinak dituen ezaugarrietatik, ezin dela deus egin. Dena dela, hamazazpi hilabete barru aldaketa nabaria izanen da. Aukera asko dituen etxe bat izanen dugu, Parlamentua kanpora begira jartzeko. Kanpora begirako proiektuak kudeaketa garden-gardena ekarri behar du. Presidenteak dio Nafarroako kultura politikoaren ispilu zabalzailea izan behar duela Parlamentuak, eta ez politika kulturalena.

Esate hori oso zabala da eta aukera asko eskaintzen ditu. Bestalde, erakundeak erreparratuz, presidentea garrantzitsuagoa da alkatea baino. Horretan jauzi kualitatibo han-

dia dago, eta profesionalki Parlamentua publikoa egitea erronka polita da.

■ Zergatik aukeratu zaituzte zu?

Urte asko daramat lan honetan, eta urteotan egin ditudan hor daude. Ez naiz politikoki gizon istilutsua. Niregan konfiantza jartzen duenak badaki fidela izanen naitzela, eta hori da 26 urtez jarraian edukitzen zaituena udal batean. Protokolo eta Alkatetzatza bulegoko arduraduna izan naiz PSNrekin, UPNrekin... Ez da proposamen gatazkatsurik egin behar. Dena alda daiteke, eta are gehiago kultura politikan. Inguru hori oso zabala da, eta nahi bada, ez hain gatazkatsua. Onartzen dena aho batez izan behar du.

■ Erronka handia dela aipatu duzu. Era berean, orain arte ez zegoen postu hori.

Erronka da Parlamentua oso erakunde uherra delako. Erronka da parlamentarioa konbentzitzea bere eginkizuna kalean ere badagoela, eta kalean egon behar duela, eta gizarteari Parlamentuaren lana aurkeztu behar zaio.

■ Parlamentuko zurrinbiloa gehienei ez zaie axola. Ez ote da aspergarri samarra?

Gauzak interesgarriak dira ezagutzen diren heinean. Badakizu berrogeita hamar lagunetik gora bildu eta hainbat gaiez aritzen direla askotan, eta, noiz edo noiz, zerbait

..... ●
«Gustatuko litzaidake Parlamentuko saio batek pelikula edo antzezlan on batek duen harrera izatea»
 ●

■ Eraikin berriak hori guztia har lezake?

Maketa besterik ez dut ikusi, baina baietz uste dut. Eraikinaren erdian atari ikaragarria du, eta hainbat ekitaldi egin daitezke han. Protokolozkoaz gain, beste gauza asko egin daitezke, Iruñean ez dagoelako ekitaldi berezietarako toki handiko eraikinik.

■ Udala uzteak ez zaitu tristetzen?

Nik hasitakoa uzteak tristetzen nau. 1984an Informazio eta Protokolo bulegoa sortzeko esan zidaten eta urte asko dira. Ez dit penarik ematen Kultura Saila uzteak, asko erretzen baitu, eta hortik iragaiten direnek txandatu beharra baitute, ideiak agortzen direlako. Protokoloarena bes-

telakoa da, oso ezagutza jakina behar delako. Baina hori guztia idatzita dago XVIII. mendeko liburu batean.

■ Zer gertatuko da Gayarre antzokiarekin?

Antzokia berritzeko lana agindu zidaten. Antzerkia gustatzen zait eta lanorduetatik kanpo egiten dut, baina berehala nahastu zen nire afizioa ase nahia zela Gayarre suspertu izana. Suspertu nuen, baina ez dut zuzendari izateko bokaziorik, antzerkia zuzentzeko gogoa dut. Urte bateko egitaraua pasa da, jendea nahiko pozik dago, eta ikusle kopurua asko igo da: 130.000 lagun bildu dira eta.

■ Javier Iturbek hartuko du zure lekukoa. Zer gomendatu diozu?

Ez dezala inoiz nahas politika kulturarekin. Zaila da arrastoa non dagoen jakitea, eta kultura politikoki kudeatzen denean, gauzak politikoki funtzionatuko dute, eta ez kulturalki. Kultura jarduera ez dezala nahas proposamena jasotzen duenaren eginkizun politikoarekin.

→ Irene Arrizurieta

soslaia

Valentin Iruñean jaio zen, duela 54 urte. 1973an sartu zen funtzionario gisa Iruñeko udaletxean, eta orain badoa. Protokoloarekin jarraituko duen arren, eginkizun kulturaletatik at geratu da, eta beti egin nahi izan duenerako beta hartu nahi luke. Antzerkia zuzendu, idatzi eta margotu nahi du; «gustatzen zaidana delako eta horiek direlako lasaitzen nauten eginkizunak». Duela lau urtetik badu buruan eleberri bat ere.

Sortzeko denbora eta lasaitasuna behar dela eta kultura zerbait «pertsonala eta librea» dela dio. Ez du sinesten Kultura sailetan. «Arazo kulturala zeurea da, eta bestea gai kultural bat da dagokionarekin mintzatzea. Nik laguntzeko obligazioa dut zure ekimen kulturala aurrera ateratzeko», gaineratu du.

Ez dituela parlamentarioak dibertigarriak egiten dio. «Gauza bat da aspergarriak ez izatea eta beste bat dibertigarriak izan behar dutela ustea. Seriotasunak ez du zertan aspergarria izan. Gakoa da Parlamentua ez aspertzeara».



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Puzgarriak, udaroko denborapasa

Abuztuan izan ohi den beroak eraginda, lehortez hitzegiten da askotan, euri gutxi, nekazariak haserre eta herritarren egarriko jaietako kalimotxo eta garagardoa baino ez. Bada beste lehorte mota bat abuztuan bereziki larriagotzen dena eta, esate baterako, idazten duenak, ur gutxi edaten duenez, bestearena baino dexente gehiago pairatu behar izaten ditu horren ondorioak.

Notiziak ez dira inondik ageri eta egunero gunero egunkari oso bat betetzeke dago, albistegi emankizun luze bat ikusentzuleei irenstarazteko. Eta egoera hau Euskal Herria bezalako toki zalapartatsu batean gertatzen bada, zer ez da izango beste batzuetan. Hala ere, gaitzarekin bizi eta gehienek ezkusiarena egin. Lehorre informatiboaren bisita udaro jasotzen dugun arren, hedabide eta kazetarien lana hau ahalik eta oharkabeen pasa dadila da. Honetarako hamaika amarru.

Abuztuak duela hemezortzi urte piztu zen Afrikako gerra hura «berpiztuko» du, eskandalu handiz ordurarte ezagutzen ez genituen hildakoak mahaigaineratuko dizkigu telebistak, gosarirako gogoa kentzen saiatuko da egunkaria. Baina Arestiren aitaren etxearren moduan, sarraskiak iraungo du, albistegarritasunak, ordea, udararekin desagertuko. Gerrekin batera, naturak mundu osoan eragindako kalte guztien berri zehatza jasoko dugu, euriteak, beroa edo haizeak direla, eguraldiaren gorabeherek egundoko garrantzia hartuko dute gure egunerokoan.

Ezaguna denez, hilabete hau ezin aproposagoa da euskal gatazkari buruz edozein filtrazio edo zurrumuru ontzat emateko eta titular handietara berehala eramateko. Horretan gauzak ez dira gehiegi aldatu eta askok gaiak zulo handiak estali ahal izateko segitzen dute erabiltzen.

Zeresanik ez «famatuen» inguruko txutxumutxuek eta hauen oporraldi paregabeek garai hauetan hartzen duten neurriaz edota urte osoan dagoen futbolaren gaidosiak egunotan eskuratzen duen tamalaz: izar berrien zero amaigabeen kontu korronea eta denboraldi-aurrearen denboraldi-aurrearen prestaketa prestatzeko lagunarteko partiduen alde aurreko erreportaiak osatua izan daiteke honen adibidea.

(Abuztuan ere) Honela daude gauzak eta hala kontatu dizkizuegu.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Goizueta:** Joxe Ripiauk kontzertua eskainiko du Goizuetan, doan, plazan, 23:00etan.
- **Tutera:** Estrella Morente eta Nadia Marquez ariko dira kantari, Gaztambide Antzokian, bihar, 22:00etan.
- **Lekunberri:** Ganbara taldeak kontzertua eskainiko du bihar, frontoian, 22:00etan.
- **Arantza:** Fermin Muguruza, Etsaiak, Parasma eta Latzen taldeek kontzertua emanen dute gaur herrian.
- **Lizarra:** Salif Keita ariko da, Los Llanos pasealekuan, 22:00etan, ostegunean.
- **Tafalla:** Gaur zezen plazan Anorexia, Estropicio, Tajadores Anquinados eta Tanka taldeen kontzertua, 23:30etan.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Munduko instrumentu tradizionalen erakusketa Zitudadelaren arma aretoan, astelehenean osteguna arte.

ZINEA

- **Zangoza:** Datorren asteazkenean *Seis dias y seis noches* filma, 18:00etatik aitzina, Karmengo Txokoan.
- **Barañain:** Gaur Lakuaren Parkean *Mi gran amigo Joe* pelikula, 22:00etan.

ANTZERKIA

- **Atarrabia:** Gaur, *20 hamarkadako urte eroak* lana kaleratuko du Yerbabuena taldeak, 21:00etan, Antxo VI. Jakituraren Plazan.

LEHIAKETAK

- **Corella:** Nafarroako Jota lehiaketaren XII. aldian izen emateko epea abuztuaren 20an bukatuko da. Izena emateko nahikoa da udalera deitzea, 948-780004 telefonora.

BERTSOLARIAK


- **Leitza:** Lizaso, Egaña, Manuel Arozena eta Aitor Mendiluze, gaur, 19:30etan, plazan.
- **Etxalar:** Peñagarikano, Lizaso eta Egaña, 18:30etan, bihar.
- **Zubieta:** Eguerdiko 12:30etan, Egaña eta Lizaso.

BESTELAKOAK

- **Valtierra:** Bihar, Ireneo Deunaren lasterketa, 18:00etan, Erribera Pasealekuan.
- **Arakil-Uharte:** Etzi zortzi, Artzain Eguna. Artzain zakurren lehiaketaz landa, beste hainbat ekitaldi izanen dira.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—Eu non quería morrer alá. ¿Sabe, miña nai?

Ez nuen han urrutian hil nahi, amatxo...